



TALDEAK ETA TALDEAN



Natur
bizipenak



Bizipenetan oinarritutako ikasketa, naturan. Naturan egoteak berak beste toki batetik aritzera gonbidatzen gaitu. Eguneroko lan eremutik atera eta elkarrekin esperientzia bat bizitzea lagungarri izaten da taldearen osasunean.

NORENTZAT

- Lantaldea indartzea erronka duten guztientzat. izan enpresa, elkarte edo instituzio bateko lantaldea.
- Eguneroko lan eta zereginen eremutik atera eta elkarrekin esperientzia ezberdin bat bizi nahi duzuen taldeentzat.
- Identifikatua duzuen zailtasun bat jorratu nahi duzuen horientzat.

ZERTARAKO

Bertan garatzen ditugun dinamikek talde izaera, elkar ezagutza eta konfiantza indartu, taldean dauden gaitasunak edota rolak ezagutu, komunikazio eta koordinazioa hobetzeko moduak identifikatu edota lidergo modu berriak arakatzeko aukera eskainiko digute.

NOLA

Elkarrekin dinamika ezberdinetan bizitakoa aztertu eta horren inguruko gogoeta sustatzeko elkarriketari tokia ematen diogu. Hori aldatu, hobetu edo indartu nahi dena izendatu eta horretarako ekintza zehatzak definitu ahal izateko.



Bizitzen dugun
horretatik ikasten
dugulako gehien

ENARA IZAGIRRE ARRIZABALAGA



Lidergo eta talde lanerako
konpetentzietan trebatzaile,
formatzaile eta coach.
Ahalduntze eta garapen prozesuetan
bidelagun.
Natur inguruetan garaturiko
bizipenetatik ikasteko **Natur
Bizipenak** programaren sustatzaile.



Bizipenak / Pertsonak/ Lidergoak Eraldaketa
/ Kultura organizatiboak
Talde osasuntsuak / Ikasketa
Inteligentzia emozionala



NOR GARA?



HELBURUA: Taldea osatzen duten pertsonak elkar gehiago ezagutzea eta modu honetara elkarrekiko konfiantza indartzea helburu duen esperientzia.



IKUSPEGIA: Ordu mordoa ematen dugu lan eremuetan. Ezagutzen al ditugu ordea ondoan ditugun lankideak? Gure lantaldekoak? Ezagutzen al duzu zure ondoan esertzen den pertsonaren hobby berezi hori? Maniarik handiena? Bizitzako pasadizo berezi hori? Ondo pasaz elkar gehiago ezagutu eta elkarrekiko konplizitatea errazten duen tailerra da hau. Harremanen eremuak edozein talderen bizian eta osasunean duen garrantzia aintzat hartuz, lanari loturikoak ez diren gaien bueltan, esperientzia atsegin bat konpartitzea eskaintzen du tailer honek.



NORENTZAT: Harremanaren eremua indartzeko beharra eta gogoia sentitzen duzuen taldeentzat: enpresa, eragile sozial, hezkuntza eremukoak, instituzionalak... Egunerokotasunetik atera eta lana (zereginak) aparte utzita, tarte batez taldea osatzen duzuen pertsonak, eta soilik pertsonak, zentralitate osoa izatea bilatzen duzuen taldeentzat pentsatua.



METODOLOGIA: 4 orduko saioa. Andoainen (Gipuzkoa) kokatua dagoen Leitzaran bailaran.



Elkar gehiago
ezagutuz,
konfiantza indartu



LANA ERAGINKORTUZ



HELBURUA: Lan prozesuetan elkarren arteko komunikazioa eta koordinazioa hobetzeko esperientzia. Egiteko bat (zeregina) pertsona ugariren artean egitea errazago eta eraginkorrago izateko moduetara gerturatzea proposatzen duen bizipena.



IKUSPEGIA: Talde lanean, elkarren arteko komunikazioaren kalitateak berebiziko garrantzia du. Elkarrekin, zeregin edo proiektu bat aurrera ateratzeaz ari garenean, elkar koordinatzeak, elkar komunikatzea esan nahi du. Hori taldean nola den erreparatzeko gonbidapena luzatzen dizuen tailer honek, eta ikuspegi formatiboagoan, hobeteko gako nagusiak non dauden ezagutzeko aukera emango dizue.



NORENTZAT: Lan egiteko egun dituzuen moduak fintzeko gogo eta beharra sentitzen duzuen taldeei zuzendua. Elkar koordinatzeko moduetan gaizki-ultu eta ondoriozko tentsioak identifikatzen dituzuenentzat. Hobe antolatzeko moduak aztertu eta probatu nahi dituzuen lantaldeentzat.



METODOLOGIA: 6 orduko saioa: jolasa, hausnarketa eta formazioa uztartzen dira. Orain dagoen moduari arreta jartzetik, zer-nola izan daitekeen beste modu batera irudikatuz. Elkarrekin bazkaltzeko tarteak ere eskaintzen da.

Komunikazio eta
koordinazioa hobetu





BALIOTSUAK GARA



HELBURUA: Taldekide guztien ekarpena identifikatu eta balioan jartzea bilatzen du bizipen honek. Pertsona bakoitzak taldeari ematen dion horri arreta jarri eta aitortza eta eskertzari tokia ematea.



IKUSPEGIA: Taldean dauden balio eta rolei begiratuko zaie. Zein uste duzu dela zurea? Eta gainerakoek zein uste dute betetzen duzula? Zertan zarete indartsu? Eta zer duzue indartzeko? Kide guztien ekarpena ikusarazi eta aitortu zein eskertzeko aukera eskaintzen duen bizipena da. Rol bakoitzaren ekarpena ulertu eta bizitzeak, taldea bere osotasunean ikusi eta ulertzeko aukera ematen du. Ordura arte izandako begirada aldatu eta lankideei beste leku batetik begiratzeko aukera erraztuz.



NORENTZAT: Taldeari sakontasun gehiagorekin begiratu nahi diozuen horiei zuzendua. Pertsonen ekarpenari balio bat eman nahi diozuen taldeei. Dagoena edo falta den horri ere begiratzeko gogoz zaudeten horientzat egokia.



METODOLOGIA: 4 orduko saioa. Dinamika eta gogoeta.

Taldekideen
ekarpena
ikusgarri bilakatu





TALDETIK EKIPIORA



HELBURUA: Talde izaera indartzea. Pertsona talde batetik harago, ekipo bat bezala aritzearen sentimendua bizitu edota indartzea.



IKUSPEGIA: Lan prozesu edo zeregin bat konpartitzea edota talde bezala erronka edo lan prozesu bati heltzea ez da gauza bera. Maiz ikusten ditugu elkarren ondoan ari diren pertsonak, baina bakoitza "dagokion" lanaren atal horri soilik begiraturaz. Modu horretara aritzeak taldearen energia eta potentzialitatea ahultzen duela uste dugu. Talde batetik ekipo baten moduan lan egitera igarotzeak dauzkan aldeez jabetu eta ekipo moduan aritzearen bizipenera gerturatzea bilatzen dugu bizipen honekin. Ezberdintasunez sumatu, eta lanerako modu berri bati atea zabaltzeko gonbidapenarekin. Inguruaz gozatu, egunerokotasunetik atera eta elkarrekin ondo pasaz, talde kohesioa indartzeko aukera eskaintzen dizue tailer honek.



NORENTZAT: Lan eremu bat konpartitzen duten pertsona taldea izatetik, ekipo izatera igaro nahi duzuen horientzat egokia da bizipen hau. Nola aritzen zareten gogoetatik hasi eta nola posible duzuen aritu bizitzen hasteko aukera eskainiko dizue esperientziak. Ekipo bezala aritzen zaretenak ere, hau indartu eta ospatzeko aukera ere baduzue tailer honekin.



METODOLOGIA: 3 orduko saioa. Elkarrekin erronka bati aurre egin beharko diozue talde bezala. Gai izango ote zarete? Talde dinamika eta gogoeta.

Talde
sentimendua
indartu



... ETA BEHAR DUZUENA

Taldean landu nahi eta behar duzuen natur inguruan jorratzeko diseinu eta proposamena egingo dizuegu, zuen beharrak entzun ostean.

Harremanetarako:

enara@harago.eus

722483288

